

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

## Kritika

**E**gunen batean hitz egin beharko da gure musika kanonei buruz: nork erabakitzen duen artista bat interesgarria den; kritikak ala entzulegoak, zeinek duen esateko gehiago; zerk kokatzen duen disko bat gure sistematoxoaren mui-nean edo periferia ahaztuan; ea horrek gure geografia politikoarekin zerikusirik duen; zergatik den duina Fugazi kopiazea eta ez, demagun, La Polla. Aurretik, baina, bada beste eztabaida bat: kritika musikalarena, alegia. “Inori interesatzen ez zaiona zertan kritikatu?” diotso eztena zorroztu berri dakarren batek. *Touché* Dena dela, idazleei etengabe *irakurri* behar izaten diegu ez dituela inork ere irakurtzen. Bada, guk ere izango dugu basamortuan deiar dar egiteko eskubiderik, ala?

Gauzak argi: Euskal Herrian apenas daukagun kritika musikal serioirik. Batzuek, halako protekzionismo abertzale bati men, etxean kaleratutako guztia ontzat emateko joera nabarmena dute. Denok elkar ezagutzearen ajeak, bistan da. Horrek mesede eskasa egiten digulakoan nago.

Gehiegizko babes horren alternatiba, baina, ez da hobe: azaleko “kritika” baita nagusi, salbuespenak salbuespen. Ea, nora jo dezake euskaldunak kritika musikal bat irakurri ahal izateko? *Entzun*, ARGIA,



DANI BLANCO

*Berria, Gara, Deia, Gaztezulo, Nabarra...* Ohar gaitezen *Entzun* kenduta beste guztiak ez direla musika hutsa jorratzen duten hedabideak –eta azken hau urtean behin besterik ez dela kaleratzen–. Horietan guztietan, diskoak mamitu baino, haien sinopsia da heltzen zaiguna, aipamen hutsa. Alde horretatik, egun, Interneten topa daitezke kritikarik mardulenak. Amateurrak, nahi bada, baina espazioaren arazorik gabe eta dedikazio txalogarriz idatziak.

Azken batean erredukzionismotik gertu uzten gaitu espazio –interes?– falta horrek. Musika Kulturaren baitako “beste atal hori” den hedabideetan, ezinbestean kazetariaren gustuaren menpe gaude nolabait. Horregatik, gehienetan joera bakar batek izaten du isla, normalean RockdeLux eta antzekoen ildotik oso gertukoa. Batzuetan ematen du The Arcade Fire gustuko ez badituzu estralurtarra zarena. Aldiz, Gojira bezalako taldeei apenas egiten zaien kasurik euskal prentsan. Munduko metal aldizkarietan urteko onenen artean agertu da talde hau, Metallicak euren birara gonbidatu berri ditu, baina gurean inork ez ditu elkarrizketatu. Honek ez luke ezer larritik, ez balitz Gojira Baionakoak direla. Baina klaro, hau heavy metala da, eta gainera, nori interesatzen zaio Iparraldea? **n**



Euskal Herrian apenas daukagun kritika musikal serioirik. Batzuek, halako protekzionismo abertzale bati men, etxean kaleratutako guztia ontzat emateko joera nabarmena dute



## TXANDAN

Andoni Mujika



Ezberdin erabakitzea, ohikotasunak agintzen duen logikatik kanpo ebaztea, gogorra da. Ia-ia erabakiaren subjektuari berari ere ez-logikoa egiten zaio. Hautu kontserbatzailearen kutsadurak jaurtitzen dituen keak bera ere kutsaturik dauka. Toxiko horien menpekotasunetik ez da erabat aske. Eta bai, espero den bezala jokatzek abantailak ditu hasieran. Turbazio gutxi sortzen du inguruan eta ekaitza barnera mugatzen da. Ausardiak hasieran, ekaitza sortzen du, zikloi ere bihur daitekeena tarteka, baina antizikloirako nahitaezkoa da. Errealitateari begira,

## Erabaki

betiko antzera, erabaki ez-konbentzionala hartuz gero konturatzen zara diskurtsoen eta praktiken arteko aldea norainokoa den. Ze gutxi diren munduan subjektu. Zenbat preso dagoen auto-ziegetan. Erabakietan oinarritutako bizitzak, bestetik, arrisku maila altuko bizitzak direla esan ohi da, baina seguritatean oinarritutakoak ze arrisku potentzial duten pentsatzen hasten naizenean kondena luze batekin lotzen ditut. Eta negarrez diot ez dela erraza erabakitzea! Erosotasun-haize indartsu eta uniformatzailearen boladari izkin egin eta espero ez den putz-kadaren alde apustu egitea. “*No hay revolución sin sangre*”. **n**